



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 12a

130. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa. Akats zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraiorako eta egoitzarako laguntzen edo diru-laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua, landa eremuetako ikasleek pairatzen duten bazterketa, bizilekuagatikoa, saiheste aldera. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtsioa eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera. Sustapen Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, 2014ko ekitaldirako aurrekontu orokorren proiektua Nafarroako Parlamentuari bidaltzeari buruzkoa, Koldo Amezketak Díaz jaunak egin (5. or.).

—Galdera, Biurdanako institutuan Gorputz Heziketako eskolak emateko duten espazio-arazoari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (6. or.).

—Galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia ikasleak sexuaren araberako bereizketa egiten duten ikastetxeak ituntzeari dagokionez, Roberto Jiménez Alli jaunak egin (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat antzeman da 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamenaren irizpenean, zeina 2013ko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Beraz, ondoko akats zuzenketa egiten da:

13. artikuluko 5. idatz-zatian (8. orrialdea, ezkerreko zutabea), hau esan ordez:

“Horrelakoetan, (...)”

Honela behar du:

“Errolda horretan, (...)”

Iruñean, 2013ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraiorako eta egoitzarako laguntzen edo diru-laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko urriaren 31n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraiorako eta egoitzarako laguntzen edo diru-laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraiorako eta egoitzarako laguntzen lerro bat sor dezan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko etapetarako, Pirinioetako ikasleentzat".

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua, landa eremuetako ikasleek pairatzen duten bazterketa, bizilekuagatikoa, saiheste aldera.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko urriaren 31n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua, landa eremuetako ikasleek pairatzen duten bazterketa, bizilekuagatikoa, saiheste aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du otsailaren 11ko 12/2009 Foru Agindua alda dezan, eranskinean, Iruñeari eta Iruñerriari buruzko lehenengo idatz-zatiko a) letran sartuz oraindik ere Iruñean eta Iruñerrian familia-bizitokirik izan ez baina derrigorrezkoen ondorengo ikasketak eremu horretako ikastetxeren batean egin behar dituzten ikasleak".

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtoa eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera.

SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2013ko azaroaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Estatuak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtoa eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio prozesuan ager dadin Foru Lege hori defendatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako errekurtoan pertsonatu dadin.

2. Espainiako Gobernuak errekurto hori jarri izanaren aurka dagoela adieraztea".

Iruñean, 2013ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2014ko ekitaldirako aurrekontu orokorren proiektua Nafarroako Parlamentuari bidaltzeari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2014ko ekitaldirako aurrekontu orokorren proiektua Nafarroako Parlamentuari bidaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaur-

kotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Legeko 36.3 artikulua ezartzen duenez, "urte bakoitzeko azaroaren lehena baino lehen, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari bidaliko dio aurrekontu orokorren foru legearen proiektua".

Foru lege proiektua jaso ez denez, parlamentu-talde honek ondokoa galdetzen dio Gobernuko lehendakariari:

Noiz emanen zaio Nafarroako Parlamentuari 2014ko ekitaldirako aurrekontu orokorren proiektua? Zer eraman du Gobernuak legea ez betetzera eta Nafarroako Parlamentuaren lana eta duintasuna gutxistera?

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, Biurdanako institutuan Gorputz Heziketako eskolak emateko duten espazio-arazoari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Biurdanako institutuan Gorputz Heziketako eskolak emateko duten espazio-arazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, azaroaren 14ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak ahoz erantzun dezan:

Departamentuak ekintzarik aurreikusi al du Biurdana Institutuan Gorputz Hezkuntzako eskolak emateko duten espazio-arazoa konpontzeko? Baiezkoan, zer konponbide aurreikusi du eta zer epetan egingen da?

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia ikasleak sexuaren arabera bereizketa egiten duten ikastetxeak ituntzeari dagokionez.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia ikasleak sexuaren arabera bereizketa egiten duten ikastetxeak ituntzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den azaroaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Zein da Nafarroako Gobernuaren irizpidea ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeak ituntzeari dagokionez?

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

